

FUNTSEZKO SOZIETATEAK

Gure enpresaren proiektua aurrera eramateko, gure helburuarekin bat datozen bazkideen eta hornitzaileen partaidetza bilatzea ezinbestekoa deritzogu Alde batetik, udalek kudeatzen dituzten zabortegeiak izango ditugu hornitzaile gisa, eta, bestetik, ingurunea kutsatzen duten hondakinak jasotzen dituen LIBERA proiektua.

LIBERA, SEO/BirdLifek Ecoembesekin aliantzan bultzatutako proiektuaren helburu nagusia *basuraltasunak* ingurune naturaletan duen eragina geldiaraztea eta amaitzea da, herritarrak kontzientziatuz eta mobilizatuz. Eta hori guztiz bat dator gure GINU enpresaren helburuarekin. LIBERA eta GINU elkarlanean ibiliko gara ingurune naturalean dagoen zaborra batuz, batez ere itsas ingurunekoa. 2030erako plastikoak ekosistemetan eragindako kutsadura bikoiztea aurreikusten da, osasunean, ekonomian, biodibertsitatean eta kliman kalteak eraginez.

Hau kontuan hartuta, benetan lagungarria den irtenbidea proposatu nahi dugu, batzen dugun zaborrari erabilpen onuragarri bat emanez. LIBERA asoziazioarekin batera jasotako hondakinak gure bezeroei eskaintzen diegun energia berriztagarria sortzeko erabiliko dugu.

Udalen zabortegeekin batera prozesu bera jarraitu nahiko genuke. Zabortege hauek, ez dute helburu nagusi etekinak ateratzea, baizik eta kutsadurarekin bukatzea. Hori dela eta, GINU zabortege hauetako hondakinak jasoko ditu, modu honetan, udalek produzio kostuak gutxitu ditzaten, hondakin gutxiagorekin lan egin beharko dutelako.

